



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezekiel Loiarte Santesteban.
Martxel Elizalde Elizalde.
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.

2020eko urtarrilaren 21ean, 19:00etan, ohiko bilkuran elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea.

2. UE-C-KO URBANIZAZIO PROIEKTUA, XEHETASUN AZTERLANA, HIRIGINTZA HITZARMENA ETA BIRPARTZELAZIOA: BEHIN BETIKO ONESPENA.

UE-C unitatearen xehetasun azterlana, birpartzelazioa, urbanizazio proiektua eta hirigintza hitzarmena erakustaldi publikoan egon ondoren ez da alegaziorik aurkeztu (2019ko azaroaren 26an NAO-n eta “Diario de Noticias”en iragarri ondoren). Arkitekto aholkularien txostena kontuan hartuta (2020ko urtarrilaren 21ekoa) eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. artikuluekin bat etorritik, Udalbatzak hurrengo **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Aipaturiko hirigintza tresnen behin betiko onespena mahaiaren gainean uztea, sustatzaileak hirigintza hitzarmena sinatu eta bertan aipatzen den bezala, %10aren aprobetxamendua ordezkatzeko duen diru kantitatea ordaindu arte.

2.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea, aipamen berezia eginez, %10aren aprobetxamendua ordezkatzeko duen diru kantitatea ordaintzen duenean, Udala prest dagoela ezohiko bilkura ospatzeko aipaturiko hirigintza tresnak behin betiko onesteko.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3. MAESTRAREN ETXEKO ALOKAIRUA: PLEGUEN ONESPENA.

Udalburuak aurkeztu ditu Maestraren etxearen alokairuaren esleipena arautuko duten pleguak. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengo **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

- 1.- Alokairuaren esleipena arautuko duten pleguak onestea.**
- 2.- Esleipenaren berri bandoz eta Nafarroako Kontratazio Atarian ematea.**
- 3.- 15 eguneko epea ematea eskaintzak aurkezteko, Nafarroako Kontratazio Atarian iragarri eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.**
- 4.- Akordioa gaur egun Maestraren etxean bizi direnei jakinaraztea.**

Martxel Elizalde Elizalde zinegotzia sartu da bilkura aretoan 19:06ak direla.

4. HILERRIKO ORDENANTZAK.

Udalburuak azaldu du martxan dagoela hilerriko ordenantzak berritzeko prozesua. Hilerriko Ordenantza berrien azkeneko testua onartzen den bitartean, behin behineko hainabat akordio hartzeko premia plazaratu du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengo **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Ordenantza berriak onesten diren bitartean baimenik ez ematea paretan plaka berriak jartzeko.**
- 2.- Plaka berriak jarri ahalko dira, betiere hurrengo baldintzak errespetatu beharko direlarik:**

-Plaka hilobiak daukan zabalera simetrikoki zentratu eta hilobiaren buruan jarriko da, lurrean.

- Plakak izena, heriotz eguna eta gorpua identifikatzeko beste edozein gauza zehaztu dezake.

-50 cm-ko zabalera x 15 cm-ko hondoa x 40 cm-ko garaiera izan ahalko du gehienez.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

5. PDR DIRU-LAGUNTZA ESKAERA. BERRESPENA.

Udalburuak azaldu du 104/2019. Ebazpenaren bidez onartu zuela PDRko diru laguntza lortzeko eskaera abiaraztea, Herriko Ostatuko pellet kaldera finantzatzeko helburuarekin. Azalpenen ondoren Udalbatzak 104/2019. Ebazpena **berrestea onartu du**:

Alde 6
Abstentzio 1

6. ESKAERAK.

6.1.- Miguel Mindeguía Mutuberría jaunak, Azkarateko baserriaren ondoan erori diren 3 haritz amerikarren aprobetxamendua eskatu du. Ikusita Basozainak egindako balorazioa, Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Aprobetxamendua enkantean ateratzea.**
- 2.- Enkantea iragarki oholean iragartzea, eskaintzak aurkezteko 15 eguneko epea emanez.**

6.2.- José Lorenzo Santesteban Otxandorena jaunak, errotapearen bidean, depuradorako hesi ondoan dagoen traktore bidea oztopoz libratzea eskatu du: Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Ikustera joatea eta horren arabera erantzuna ematea.**
- 2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.**

6.3.- Mikel Belarra Tellechea jaunak, atzeraturiko gradua kobratzeko eskaera egin du. Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Ituren eta Zubietako Elkartzera bideratzen den fondo hornidurarako diru gehiago gordetzea, atzeraturiko graduaren diru kantitatea ordaindu ahal izateko.**
- 2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.**



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

6.4.- Unai Gardoki Alkorta jaunak, Lizarrako Ikastolaren izenean (Nafarroa Oinez), laguntza eskatu du. Udalbatzak hurrengo **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Laguntzarik ez ematea, aukera badagoelako Lizarran D ereduan ikasteko hezkuntza publikoan.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

7. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak emandako Ebazpenen berri eman du (100/2019. Ebazpenetik 02/2020. Ebazpenera), eta Udalbatza **jakinaren gainean** geditu da.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: Malerrekako Euskara Zerbitzuaren urteko plangintza; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak emandako erreketak baimenak –Martín Legazcue Santesteban–; Basozainarekin batera sinaturiko errekonozimendu akta; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak egindako ahuntz osasuntsuen kanpainia; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari egindako landaketa eskaera –Martin Legazcue Santesteban–; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari egindako oihan aprobetxamendu eskaerak –José Antonio Loyarte Mutuberría, Manuel Santesteban Loyarte eta Inmaculada Gragirena Mutuberría–; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari egindako oihan aprobetxamendu luzapen eskaera –José Tellechea Tellechea–; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak emandako oihan aprobetxamendu baimenak –Ana María Múgica Santesteban eta María Mercedes Santesteban Santesteban–; Lehendakartzako, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak emandako 316/2019. Ebazpena, artxioboaren mantentzeko diru laguntzarena; NUKF-ek emandako hiri eremuen berreskurapenerako diru laguntza; Euskarabideak 2019an euskara sustatzeko emandako diru laguntza; Kirol eta Kulturako Departamentuak emandako diru laguntza Errotarako funtzionamenduarentzako; Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak emandako diru laguntza Bake Epaitegien mantentzeko; Izarraren faktura zubia konpontzeko; Nafar Gobernuak egindako jakinarazpena izatezko bikoteen erregistroaren inguruan; Iberdrolak ordaindu beharreko tasen jakinarazpenak; Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutoak egindako uraren azterketaren emaitzen jakinarazpena (parametroen barnean "cloro libre residual" ezik); Desinberak Errotan egindako kontrolen dokumentazioa; Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak emandako



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

manifestaldirako baimena; Nafar Gobernuari inauteriak direla eta eskaturiko eta emandako bide publikoen okupaziorako baimena; Nafar Gobernuak Toki Entitateetan egindako emakume politikoaren foruaren deialdia; Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak emandako baimena Errotako ur aprobetxamenduaren kontrola egiteko;

9. GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 19:45ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.